

SANTILLANA
ZUBIA

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-42-1

Lege-gordailua: M-14362-2019

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Argitalpen-proiektuaren garapena: Marta Olivares, Leonor Romo, Paz Olivares eta Concha Romero

Irudiak: Inés Burgos

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Argitalpenaren koordinazioa:

Marta Olivares

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

NOLAKO MUNDUA NAHI DUGU?

Frantzisko Aita Santuak
gidatzen gaitu

Irudiak: Inés Burgos

SANTILLANA
ZUBIA

Frantzisko Aita Santuaren hitzak altxorra dira, eta hitz haiei esker, askoz ziurtasun handiagoz dakigu Elizaren familiako kideok zergatik jarraitzen diogun ebanjelioari. Hain zuzen ere, Frantziskok ez digulako hitz egiten Elizari buruz, baizik eta Jesusi buruz. Izan ere, Jesusek gizaki bakoitzaz hitz egiten zuen. Jesusek, konfiantzaz begiraturaz, zin egin zigun oso zoriontsuak izango ginela, denekin bakean bizitzen ikasten bagenuen.

Horregatik, liburu honetan funtsezko hitz batzuk biltzen dira, hala nola, barkamena eta ekologia. Aita Santuak, adierazpen sinpleen bidez, hitz horiek eguneroko bizitzan aplikatzera bultzatzen gaitu. Esaterako, esaten digu apaltasuna dela kalterik egin ez, eta indarra ematen digun barau bakarra. Esaten digu familia-bizitza maitasun-gune bat dela, bai eta balioen eskola bat ere.

Horrek gogora ekartzen dit gaur egungo nazioarteko egoera, non nagusi baitira gerrak, biktimak, abusuak eta bazterketa. Familia migratzaileak datozkit gogora. Seme-alabengandik banandu dituzten gurasoak, sufriarazteko eta beren herrialdera itzultzera behartzeko. Orobat datozkit gogora gure hegoaldeko mugan «unean bertan» etxera itzultzera behartutako adingabeak. Zer egingo dute gero? Etxera itzuli ahalko dira? Gurasoei azalduko al diete ez dietela utzi muga pasatzen, lan egiten saiatzeko eta beraiei dirua bidaltzeko?

Zorionez, gure gizarteko haurrak ez dira hazten ari hainbeste ziurgabetasunez, indarkeriaz eta gabeziaz inguratuta. Horregatik, beharrezkoa da egoera horien berri ematea, ikas dezaten enpatia sentitzen eta besteen sufrimendua salatzen. Ikas dezaten denok egin dezakegula zerbait. Denok ditugula eskubide berberak. Ahotsa altxatu behar dugula, Frantzisko Aita Santuak egiten duen bezala, gaur egungoak bainoago aurreko mendeetakoak diruditen bidegabekeria eta krudelkeria horien aurka. Ezin dugula onartu gorrotoaren diskurtsoek denok elkarrekin amankomunean duguna desitxuratzea: gure gizatasuna.

«Jesusek Petriren esku utzi zituen giltzak, zeruetako erreinuko ateak zabaltzeko, ez ixteko», idatzi zuen Frantziskok egun batean bere Twitter kontuan. Haren ereduari jarraituz, duela hainbat urtetatik hona, Bakearen Mezulariak fundazioak eliza bat kudeatzen du Madrilen, zabalik dagoena eguneko 24 orduetan. Bertan, maitasuna eskaintzen saiatzen gara, janariaz eta tapakiez gain. Eta maiz lortzen dugu zoriontsu izateko eskubiderik ez zutela uste zuten pertsona asko beren burua balioesten hastea. Frantziskorengandik ikasi dugu hori. Harengandik ikasi dugu begirada beti zabalik izaten. Denak berdin maitatzen, bakoitzaren egoera, arraza, jatorria, gustuak edo dirua edozein direla ere. Liburu honetan jasotako hitzek ni bezainbeste hunkituko ahal zaituzte!

Aita Ángel

Bakearen Mezulariak

**NOLAKO
MUNDUA
NAHI DUGU?**



Familia

Familian bizi NAHI DUGU,
munduko eskolarik onenean.

«Familia da oraindik ere gizartearen muina. Eta gure lehen eskola ere bada, gure hurrek han ikasten baitituzte giza balioak eta balio espiritual eta moralak. Bada, haur horiek bihurtzi ontasunaren, zintzotasunaren eta justiziaren zabaltzaile bilakatuko dira gure komunitateetan».






Adiskidetasuna

Lagunez betetako mundua NAHI DUGU,
lagunak Jainkoaren opari baitira.

«Ikas dezagun lagunei eskerrak
ematen beren adiskidetasunaga-
tik, maitasunagatik, konfiantzaga-
tik eta, batez ere, gurekin igarotzen
duten denboragatik; izan ere, lagu-
nak Jainkoaren opari dira beti».





Xumetasuna

Gure munduan, gauza xumeak zerbait handia
eta baliotsua bilakatzea NAHI DUGU.

«Baliots ditzagun gure bizitzako
gauza xumeak: gauzak hartu eta
bota beharrean, baliots eta gorde
ditzagun».

